

Nahi izan ala ez izan

Batek nahi ez duenean, eta besteak bai, bi aukera daude: nahi ez duenaren nahiak agintzea, edo nahi duenarenak. Bi aukeren arteko muga argia da, eta bortxaketa paratzen du bigarren aukeraren aldean. Hori horrela kokatzea, historikoki begiratuta, ez da berezkoa. Denok ez gaude oraindik hor. Baina esango nuke horrantz mugitzen ari direla, astiro-astiro, eskema mentalak.

Eskema horrek talka egiten du beste errealitate batekin: ezin da frogatu adostasuna egon den edo ez, eta, egon ez bada, biek ote zekiten. Ez bagara hasten hori dena kontratu idatziz finkatzen. Eta ez dakit halakorik nahi dugun. Nik neuk, ez. Nahiko nuke ezetzak ulertzea eta errespetatzea. Baina egia da, hala ez denean, konplikatu egiten dela kontua, dezente. Nola frogatu ezetz esan duzula, ezetz argia gainera, besteak ulertzeko modukoa, besteak *ulertu* duena. Hori frogatzen hasi nahi ahal dugun. Horretaz hitz egiten hasi nahi dugun. Norekin hitz egin ahal dugun. Agian, baten batek nahiago du esan “hemen ez da ezer gertatu, dena ondo”.


Pantaila handian ikusitako halako istorio bat katigatuta geratu zait buruan. *Dena* ondo, dio tituluak. Baina eskolako gelakoen topaketa baten ondoren –festa, alkoholarekin, barreen, dantzen, flirt bihurrien ondoren– emakumeak ez du nahi, eta gizonak bai. Emakumeak bromatan hartu du hasieran gizonaren hurbilketa sexuala. Gero ezetz esan dio irmoki. Eta hark ezetza onartzen ez duela konturatu denean, ezin du sinistuti. “Benetan?”, galdetu dio. Eta errenditu egin da nolabait. Baina gizonak badaiki. Brageta jaitsi, haren barruan sartu eta hazia isuri bitartean, badaki besteak ez duela nahi. Umiliazio handiko eszena da. Astindu egiten du.

Eta gero? Biharamunean? Hurrengo egunetan? Nori kontatu? Zer kontatu?



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

Nola kontatu? Ez dio garrantzirik eman nahi. Sexu txarra pare bat minutuz (ez dira gehiago izan). Iraina baino indartsuago izan, hura joko zelaitik kanpo utzi. Erreprimitu egiten du. Ez du bere burua biktima gisa ikusi nahi. Ez du poliziarengana jotzen. Ez du errebelatu nahi. Ez du errukirik nahi. Ez gaitzespenik. Bortxaketa hitza ez da aipatzen. Baina horixe da gertatu dena.

Gertatu dena ikusi ez duen inortxok ez luke gizona munstroztat joko. Gizon horrek ez lituzke *La Manada*-koen estiloko whatsappak idatziko. Ez da guardia zibila. Ez eta albornozak luzitzen dituen botere handiko gizon ukiezina ere. Argitaletxe batean lan egiten du.

Filma bukatzean pentsatu nuen: askotan gertatuko dira halakoak. Ezaguna izatea bestea, bizitakoa ez lotzea bortxaketa hitzarekin. Eta ez soilik beste garai batekoei, iskanbilarik nahi ez duten emakume ahulei. Horixe bera zioen duela gutxi Germaine Greer feminista polemikoak: oso ohikoa dela adostu gabeko sexua, egunerokoan kokatua dagoela. *On Rape* liburua argitaratu baino lehenagoko hitzaldi batean esan zuen bortxaketa sarritan, ikaragarritzko biolentziadun ekintza izan beharrean, ekintza zabarra, axolagabea, sentiberatasun gabekoa izan ohi dela. Bortxaketa hutsaltzea egotzi zioten batzuek. Agian ez zuen jakin ñabardurak egiten, erabilitako hitzekin edo testuinguruarekin asmatzen. Interesgarria iruditzen zait, hutsala irudi dezakeen eta marka fisikorik uzten ez duen bortxaketak sortzen duen kaltean ere fokua jartzea.

Greerek proposatzen du bortxaketak zigortzeko sententziak murriztea frogamaila baxuagoaren trukean. Eztabaida zabaltzen du. Bortxaketa desmitifikatetik urrun, komeni da esatea: egunerokotasunean ere gauza grabeak gertatzen dira, inon agertzen ez direnak. Hitz egin dezagun horietaz ere. ■